

BAGERAREN BULETINA

2018 apirila

Kaixo bagerakide,

Apirileko buletinaren bidez, hilabete honetan eskuartean ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu.

Bageralako Nor: " Donostiako eskola Euskaraldiarekin bat"

Bagera Elkartek Irutxuloko Hitzan hilean behin argitaratuko den Bageralako Nor atalean eremu/arlo/sektore ezberdinetan dabilzan aritu eta adituei *Euskaraldian* parte hartzeko eta aktibaziorako arrazoiak partekatzeko gunea eskainiko diegu.

Josune Otxotorenak (Berritzeguneko kideak) martxorako egindako gogoeta Irutxuloko Hitza astekariko (2018/04/13) alean irakur dezakezu edo [interneten](#).

Euskaraldia: Donostiako aurkezpen ekitaldia

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte egingo da [Euskaraldia](#), 11 egunez Euskal Herri osoan euskaraz bizitzeko saiakera. Hori dela eta, Donostiako Udalak eta Bagera Elkartek antolatu duten Donostiako aurkezpen ekitaldira gonbidatu nahi zaitugu **apirilaren 26an** 18:30ean (lekua zehazteke).

Gai-jartzaile ikastaroa

Gai-jartzaile lana probatu nahi duzu?

Gai-jartzailetza eta aurkezletza, gaur egun, bertsogintzaren adar garrantzitsu bezain interesgarrietako bat dira, eta bertsozaleei aukera ematen die bertsoa hurbiletik gozatzeko. Ikastaro honek gai-jartzailetzaren barrunbeetan arakatu nahi du, modu teoriko eta praktikoan.

Gidaria Iker Iriarte izango da eta 4 saio izango dira 2 ordu eta erdikoak: **apirilak 19, apirilak 26, maiatzak 3 eta maiatzak 10**, ostegunetan, arratsaldeko 18:30etatik 21:00ak arte. Prezioa: Orokorra: 35€. Bazkideak, ikasleak eta langabetuak: 25€. Izen ematea Bagera Elkartean.


Informazio gehiago [hemen](#)



Elkarrizketa Filosofikoak

Apirilaren 9an, arratsaldeko 19:00etan Urrats euskaltegian ([Amezketarrak kalea, 12](#)) izango da hilabete honetako Bageraren Elkarrizketa Filosofikoa.

Landuko den gaia: Zerk egiten gaitu gizon ala emakume? Sexuen arteko desberdintasuna zenbateraino da biologikoa, eta zenbateraino sozio-politikoa? "Gizon" eta "emakume" kategoriak kategoria politiko dira ala egitate naturalak? Zenbat dute naturatik eta zenbat kulturatik?



Europako hizkuntzan maparen itzuleraren ospakizuna

2016 urtean zehar Tabakalera eta tren geltokiaren arteko horman ikusgai egon zen Bagerak eta Donostia 2016k elkarlanean sustatutako [Europako hizkuntza-komunitateen egurrezko mapa](#) handia. Bere tokitik kenduko zutenaren albistea hedatu zelarik, donostiarrek zioten estimua agerian geratu zen 2017 hasieran. Orain, Udalaren enkarguz, brontzezko mapa berria ezarriko dute lehengoaren kokapenetik oso gertu (Tabakaleraren Mandasko Dukearen kaleko aldean). Europako eta Donostiako hizkuntzen alde eta hauek bultzatzeko donostiarrek behin eta berriro erakusten duten grinagatik ospakizun xumea egingo dugu **apirilaren 11n** 18:30etan mapa berriaren aurrean. Arte-lanaren egileen azalpenak ezagutuko ditugu eta musika zein beste sorpresa batzuek gozatuko dugu guregatik eta gure hizkuntzengatik.

Errenteriarira irteera

Apirilaren 14an, Errenteriarira joango gara [Jantzi Zentroa](#) bisitatzera. Donostiatik autobusa 11:00etan hartuko dugu Gipuzkoa Plazan (gogoratu Mugi txartela ekartzeaz). 12:00tan Jantzi Zentroa bisitatzera joan ondoren Gaztelu Ostatuan bazkalduko dugu, 14:00ak aldera eta bertan mendi irteerako taldearekin bilduko gara. Animatuz gero, 28 euro ES33 30350092570920042476 laboraleko kontuan egin behar da diru sarrera (izen eta abizenak jarriz kontzeptuan) apirilaren 10erako.

Turismoaren ondorioak hiriko hizkuntzen testuinguruan

Gaur egun Donostian indarrean dagoen turismo ereduak herritarren bizimoduan dituen ondorioen gaineko eztabaida soziala bolo-bolo dabil azken urteetan. Hizkuntzari dagokionez ikus daitezkeen ondorioak ez dira sakonki aztertuak eta interpretatuak izan oraindik. Interesgarria ikusten dugu hausnarketa saio kolektibo batean, patxadaz eta giro informalean, taldean gaiak solasteari. Horretarako tailer txiki bat antolatuko da parte hartu nahi duen orori irekia, **apirilaren 17an** arratsaldeko 19:00etan Bageraren lokalean.

Kantu Jira

Apirilaren 21ean, ohi bezala, hilabeteko kantu Jira egingo da 12:00etan Fermin Calbeton kaletik abiatuta. Bertan [euska kanta tradizionalak](#) abesteko aukera izango dugu Parte Zaharreko kaleetan barrena.

Agenda

Astelehenero, 15:00etan, [Auzoko egitasmoa](#) Alzako Oleta ikastolan.

Ostegunero, 17:30ean, [Auzoko egitasmoa](#) Amara Berriko Auzo Elkartean.

Astelehena 9, 19:00etan, Elkarrizketa Filosofikoak Urrats Euskaltegian (Amara Berri).

Asteazkena 11, 18:30etan, Europako Hizkuntzen Mapa berrituaren inaugurazioa Tabakalera ondoan (Egia).

Larunbata 14, 11:00etan, Errenteriarira irteera.

Asteartea 17, 19:00etan, Turismoaren ondorioak hiriko hizkuntzen testuinguruan hausnartzeko saioa Bagera elkartean.

Larunbata 21, 12:00etan, Kantu Jira Fermin Calbeton kaletik abiatuta.

Osteguna 26, 18:30ean, Euskaraldia ekimenaren Donostiako aurkezpena.